

[2020ko Laguntzen katalogoa]



AURKIBIDEA

1. TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

a. TEKNOLOGIA

Hazitek
Kalifikazio txostenak ondorio fiskaletarako
Elkartek
Emaitek +

b. INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Industria digitala
Zibersegurtasun industriala
Basque Industry 4.0
Mikroenpresa Digitala Inplantalariak
Mikroenpresa Digitala Prestakuntza
Enpresa Digitala zentroak
Barnetegi Teknologikoa

c. BERRIKUNTZA

Innobideak Lehiabide
Innobideak Kudeabide
Innobideak Pertsonak
Innobideak Prestakuntza
Hazinnova

2. EKINTZAILETZA

Ekintzaile
Basque-Ekintzaileak Fondoa
Aurrera
Bind 4.0

3. INBERTSIOAK IBILGETUAN

Renove Industria 4.0
Gauzatu Industria
Indartu
Reindus (Industria Inbertsiorako laguntza Finantzarioa)



HELBURUA

EAEko enpresa sektorean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Euskadi Planaren espezializazio alorretan, ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak –lehiarako proiektuak nahiz proiektu estrategikoak– gauzatzeko laguntza.



NORENTZAT

Euskal enpresa egitura (sektore ekonomiko guztiak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

A.- Lehia proiektuetarako (urtekoak).

- Oinarri zientifiko eta teknologikoko produktu nahiz enpresa berrien garapena.
- Proiektuak banaka edo lankidetzan gara daitezke.
- Urteko gutxieneko aurrekontua gutzira: 100.000 €; lankidetzan proiektuen kasuan, 50.000 € enpresa bakoitzeko.
- Dirulaguntza: %20-%40 industri ikerketako proiektuetarako.
- Dirulaguntza: %15-% 25 garapen esperimentaleko proiektuetarako.
- Dirulaguntza ez itzulgarriaren gehieneko zenbatekoa: 250.000 € onuradun bakoitzeko eta urteko.

B. Proiektu estrategikoetarako (urte anitzekoak, 3 urte gehienez).

- I+Gko proiektu estrategikoak eta 2020 ZTBP / RIS3 espezializazio alorretakoak.
- Trakzio proiektuak, lankidetzan edo bakarka garatuak. 4 milioi €-ko gutxieneko inbertsioa.
- Dirulaguntza: %25-%50 industri ikerketako proiektuetarako.
- Dirulaguntza: %20-% 25 garapen esperimentaleko proiektuetarako.



BALDINTZAK

- Proiektuak laguntzaren eskabidea aurkezteko dataren ondoren hasi behar dira.
- Tramitazio elektronikoa, erakundearen lege erantzulearen ziurtagiri digitalaren bitartez.
- Lehiaketa bidez.

1 | TEKNOLOGIA

Kalifikazio txosten teknikoak ondorio fiskaletarako

ALDIA:
2020ko urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten teknikoak egitea.



NORENTZAT

Euskal enpresa egitura (sektore ekonomiko guztiak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Enpresek aurkeztutako I+Gko jarduera proiektuak ebaluatzeko zerbitzua ematea, eta, ebaluazioa positiboa bada, ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten tekniko bat egitea.

Helburua da euskal enpresetan ikerketa eta garapen jarduerak sustatu eta bultzatzea, eta, horretarako, Sozietateen Zergan aplikatu beharreko kenkari fiskalei segurtasun juridiko handiagoa ematea; hala, ebaluazio tekniko hau eta ondorengo txostena egitea doako zerbitzua da, urterokoa eta foru aldundientzat loteslea.



LAGUNTZA MOTA

Enpresen I+Gko jarduerak, hala badagokio, kalifikatzea, eta horren bidez, Sozietateen Zergan kenkariak lortzea erraztea.



BALDINTZAK

- Enpresek egindako ikerketa eta garapen proiektuak.
- HAZITEK programari proiektu bat aurkeztu dioten enpresek zuzenean jasoko dute beren txostena, berriz dokumentatu beharrik gabe.

**HELBURUA**

Funtsezko Ikerketa Kolaboratiboko proiektuak eta Ahalmen Industrial Handiko Ikerketa proiektuak egiteko laguntza. Proiektuok ZTBESko eragileek egingo dituzte, 2020 ZTBPre eta Espezializazio Adimendunerako RIS3 Estrategiaren barruan.

**NORENTZAT**

ZTBESko eragileak.

**LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA**

Funtsezko lankidetzak ikerketako proiektuak. Funtsezko ikerketa proiektuak, ZTBESko eragileek lankidetzak bidez eginak, 2020 ZTBPre eta RIS3 Estrategiaren lehentasunezko alorretan ezagutzak handitzea helburu. Gutxieneko aurrekontua guztira: 500.000 € proiektuko eta 50.000 € parte hartzen duen erakunde bakoitzeko. 2 urtera arteko iraupena.

Potentzial industrial handia duten ikerketa proiektuak. Funtsezko ikerketara orientatuko proiektuak edo ikerketa industrialekoak, ZTBESko enpresa arloko I+Gko unitateek gidatuak, trakzio ahalmen eta merkatura iristeko ahalmen handikoak. Gutxieneko aurrekontua guztira: 100.000 € proiektuko eta 50.000 € parte hartzen duen erakunde bakoitzeko. 2 urtera arteko iraupena.

Interes bereziko ekintza osagarriak. Eskaintza eta eskaera teknologikoaren arteko bitartekaritza proiektuak, eskaintza-eskaera bitartekaritza organismoek eta hedapen organismoek landuak, honako hauek egiteko: zaintza eta prospektiba teknologikoko azterlanak, lankidetzak bultzatzeko jarduketak, transferentziako I+G+B-ko kudeaketa jarduerak eta I+G+B-a nazioartekotzeko jardueretan parte hartzea sustatzea. 2 urtera arteko iraupena

**BALDINTZAK**

- Proiektuak laguntzaren eskabidea aurkezteko datoren ondoren hasi behar dira.
- Tramitazio elektronikoa, erakundearen lege erantzulearen ziurtagiri digitalaren bitartez.
- Lehiaketa bidez.

1 | TEKNOLOGIA Emaitek+

ALDIA:
2020an argitaratzeko zain



HELBURUA

Teknologia Zentroyen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroyen (IKZ) emaitza eta gaitasunak hobetu eta merkatura orientatzea, I+G+B-aren balio katean zehar lan eginez.



NORENTZAT

Teknologia Zentroak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Teknologia Zentroyen eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroyen jardura ez-ekonomikoa babestera bideratutako laguntzak. Zentroyen jardura globalaren emaitzak ebaluatuta eta aztertuta esleitu da finantzaketa.



LAGUNTZA MOTA

Erakunde onuradunak deialdiari dagokion urte naturalean egiten duen jardura ez-ekonomikoaren kostu osoaren %100erainoko diru laguntza.



HELBURUA

EIKTak enpresa sarean sartzen laguntzea.



NORENTZAT

Enpresa industrialak eta produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzu teknikoak, diseinukoak eta logistikakoak egiten dituzten enpresak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Hauetan EIKTak sartzea: (i) Sentsorika, SCADA, Serbituzazioa, Prozesuen automatizazioa, BigData, Adimen Artifiziala, Machine Learning, Blockchain, (ii) Errealitate birtuala eta areagotua, (iii) Ikusmen artifiziala, (iv) Smart factory, (v) Robotika kolaboratiboa eta malgua, (vi) Gehikuntzako fabrikazioa, (vii) Gamifikazioa, (viii) Merkataritza elektronikoa (ix) Kudeaketa aurreratuko sistemak, ERP, BI, SMC, Mantentze lan prebentiboa, Hornidura katearen kudeaketa logistikoa (x) Produktuaren bizi zikloaren kudeaketa (CAM, CAE, PDM, DMF motako aplikazioak).



LAGUNTZA MOTA

Dirulaguntza gastu hautagarrietan (aholkularitza, ingeniariatza, hardwarea eta softwarea):

- Mikroenpresa eta enpresa txikia: %50.
- Enpresa ertaina: %35.
- Enpresa handia: %25 ((ix) eta (x) proiektuak ez daude sartuta).

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak: Aholkularitza eta/edo Ingeniaritza eta Hardware / Software gastuak.

Mugak: hardwarea eta softwarea (9.000 €), aholkularitza gastuak (18.000 €), ekitaldian zehar diruz lagungarria den jarduketa bat edo gehiago egiteko.

Urteko gehieneko dirulaguntza 18.000 €-koa izango da enpresako.



BALDINTZAK

- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Gauzatzeko epea: 12 hilabete.
- Proiektuak 2020-01-01etik aurrera, bi hilabete argitaratzen denetik.



HELBURUA

Bultzada ematea Zibersegurtasun Industrialari, batik bat enpresa sareko IT/OT inguruneetan zibererasoetatik babesteko sistemen konbergentzia eta integrazioa lantzen duten proiektuei.



NORENTZAT

Enpresa industrialak eta produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzu teknikoak, diseinukoak eta logistikakoak egiten dituzten enpresak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Zibererasoen aurrean babes sistemen konbergentziari eta integrazioari heltzen dioten proiektuak, IT/OT inguruneetarako (Information Technology / Operational Technology); Urruneko sarbideen eta informazioaren babesa; Zibersegurtasunaren diagnostikoa eta ebaluazioa, Langileen kontzientziakzioa, Estandarrak egokitzea, Dispositiboaren monitorizazioa...



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren norainokoa: Onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien %50. Dirulaguntzaren muga 18.000 €-koa izango da proiektuko.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak: Aholkularitza eta/edo Ingeniaritza eta Hardware / Software gastuak.

Mugak: hardwarea eta softwarea (14.400 €), aholkularitza gastuak (18.000 €).

Urteko gehieneko dirulaguntza 18.000 €-koa izango da enpresako.



BALDINTZAK

- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Gauzatzeko epea: 12 hilabete.
- Proiektuak 2020-01-01etik aurrera, bi hilabete argitaratzen denetik.

1 | INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Basque Industry 4.0

ALDIA:
Argitaratzeko zain – 2020-09-15



HELBURUA

Helburua da hornitzaile teknologikoetatik enpresa industrialetara teknologia transferitzeko ikerketa industrialeko nahiz garapen esperimentaleko proiektuei laguntzea, fabrikazio aurreratuari aplikatutako EIKTen arloan, demostrazio efektua eduki eta, horri esker, EIKTetan garatutako I+G proiektuen emaitzak merkatura azkarrago transferitu ahal izateko.



NORENTZAT

Enpresa industrialak eta produktu-prozesu industrialari lotutako zerbitzu teknikoak, diseinukoak eta logistikakoak egiten dituzten enpresak, proiektuak banaka edo lankidetzan aurkezten dituztenak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Proiektuak arlo honetakoren batekin loturik egon beharko dute, fabrikazio aurreratuari aplikatutako CPSen alorrean (Cyber Physical Systems): (i) Zibersegurtasuna eta Industria Komunikazioak, (ii) Cloud Computing, (iii) Big Data, Analitika Aurreratua eta Business Intelligence. (iv) Machine Learning, (v) Robotika Kolaboratiboa, (vi) Adimen artifiziala, Errealitate Areagotua, (vii) Ikusmen areagotua, (viii) Sentsorika, (ix) Diseinu eta Gehikuntzako Fabrikazioa material metalikoetan eta aurreratuetan.



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren norainokoa: onartutako gastu eta inbertsioen %25 + %15, baldin eta proiektuan enpresa baten eta ikerketako eta ezagutzak hedatzeko organismo bat edo gehiagoren arteko lankidetzara efektiboa izan bada. Dirulaguntzaren muga 150.000 €-koa izango da proiektuko (lankidetzara proiektuetan 300.000 € gehienez ere). Proiektuen gutxieneko aurrekontua: 75.000 €.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak:

- “I+Gko eragileak” jardundako orduengatiko gastuak, planta industrialeko lagun egitea eta aholkularitza barne.
- “Inplantalariaren” dedikazio gastuak. Gehienez %20.
- Eragile teknologikoak eskainitako Jabetze Industrialak eskuratzeko gastuak. Gehienez %20.
- Hardware eta software inbertsioak edo gastuak. Gehienez %20.
- Enpresa onuradunaren barruko langileen gastuak. Gehienez %10.

Urteko gehieneko dirulaguntza 150.000 €-koa izango da proiektuko, eta 200.000 €-koa enpresako.



BALDINTZAK

- Proiektuek TRL 5etik TRL 9ra bitarteko mailan kokaturik egon beharko dute (Technology Readiness Levels).
- Lehiaketa bidez.
- Gauzatzeko epea: 16 hilabete.

ALDIA:
2020ko urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Doako Aholkularitza Teknologikoko zerbitzu honen helburua negozioa hobeto kudeatu eta sustatzea da, mikroenpresari eraldaketa digitalean laguntzeko; horretarako, era praktikoan, pertsonalizatuan eta neurrira ezartzen dira teknologiak (EIKT soluzioak), eta horrek hobetu egiten du enpresa lehiakortasuna.



NORENTZAT

SPRIren atarian, zerbitzuaren webgunean izena emateko [Formularioa](#) betez eskaera egiten duten mikroenpresa, autonomo eta ekintzaileak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

EIKT soluzioak –[EIKT Soluzioen Katalogoan](#) eskuragarri– ezartzeko aholkularitza teknologikoko zerbitzuak lagundu egiten die Euskal Autonomia Erkidegoko mikroenpresa, autonomo eta ekintzaileei balio erantsia ematen duten EIKTen erabilera intentsiboan txertatzen, haien negozio eredia ingurune digital berrira moldatu eta eraldatuz, aholkularitza pertsonalizatu, neutral, doako eta enpresa bakoitzaren gaitasunen neurrira egindakoaren bitartez.



LAGUNTZA MOTA

EIKT soluzioen doako ezarpena inplantalari-aholkulari teknologiko baten eskutik. Inplantalaria mikroenpresa, autonomo edo ekintzailearen instalazioetara joaten da lanaldi erdiz teknologiak egoki erabiltzen eta lehiakortasunean hobera egiten laguntzera. Lehiakortasuna zabaltzen duten tailer teknologikoetara joanda, ezarpen indibidualizatu indartzen da, negozioetan, besteak beste, honako arlo teknologiko hauek txertatzen direla eta: gailuen erabilera bidezko mugikortasuna, fakturazio elektronikoa eta zibersegurtasuna.

Ezarpenaren ondoren, eskatzaileak segimendu jarraitua eta kontsulta teknologikoak ebazteko zerbitzu bat dauka, lehiakortasunean hobetzen laguntzen dion teknologia egoki erabiltzeko.

1 | INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Mikroenpresa Digitala Prestakuntza

ALDIA:
2020ko urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Prestakuntza zerbitzu honen xedea mikroenpresak dira. 2 orduko ikastaroak emanez, informazioaren teknologien erabileran trebatzen dira mikroenpresak, lehiakortasunean hobera egiteko.



NORENTZAT

Mikroenpresak, autonomoak eta ekintzaileak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Hedapena eta sentsibilizazioa, autonomoen eta mikroenpresen negozioak hobetzen dituzten tresna digitalak erabiltzeko: bi orduko ikastaroak egiteko eskaintza, KZGunea Zentroen Sarean, negozioak teknologia berrietan txertatzeari buruzko prestakuntza jasotzeko. Hona hemen ikastaro batzuk:

- Metaposta Delivery: enpresen eraldaketa digitalerako irtenbidea.
- Egokitu zure enpresa datu pertsonalak babesteko legedira.
- Instagram: estrategia soziala eta bisuala, zure negozioa sustatzeko.
- Canva: diseinu grafikoa diseinatzaile ez direnentzat. Nabarmendu zure irudi korporatibo eta digitala diseinu erakargarriekin.
- Bideo marketina: estrategia birala, zure produktuak eta zerbitzuak sustatzeko.
- 5s-en aplikazioa zure ingurune digitalean.



LAGUNTZA MOTA

EIKTei buruzko prestakuntza ikastaroak. 2 ordu irauten dute eta KZGunea Zentroen Sarean ematen dira.

1 | INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Enpresa Digitala zentroak

ALDIA:
2020 urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Teknologia Berriei (EIKT) buruzko prestakuntza eta zabalkunde jarduerak antolatzea, lehenetasuna emanez "JOERA TEKNOLOGIKOEI" (5G, Adimen Artifiziala, Ikusmen Artifiziala, Biki Digitalak, Marketin Digitala, Maching Learning, etab.). Jarduera horiek Euskadiko PARKE TEKNOLOGIKOETAN garatzen dira, baina hainbat eskualdetara ere hedatzen dira. 270 ekitaldi inguru antolatzen ditugu, 7.000 parte hartzaile baino gehiagorekin.



NORENTZAT

EIKTak euren enpresan sartzeko kezka edo konpetentziak dituzten pertsonak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

EIKTei lotutako 270 ekintza baino gehiagoko eskaintza (tailerrak, kongresuak, mintegiak, konferentziak) www.spri.eus/euskadinova (ENPRESA DIGITALA)



LAGUNTZA MOTA

EIKTen erabilerari buruzko trebakuntza hiru lurraldeetan aldizka egingo diren kongresu, mintegi eta jardunaldietan mamituko da.



1 | INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Barnetegi Teknologikoa

ALDIA:
2020 urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

EIKTekin lotutako gaiak hedatzea eta horien gaineko sentsibilizazioa sustatzea. Egiten den lana abiapuntu gisa erabili nahi da parte hartzaileek gaia beren enpresa barruan bultzatzea, eta enpresa txiki eta ertainei ezagutza horrek, eta ezagutza horren aplikazioak, emaitzak optimizatzen lagundu diezaien.



NORENTZAT

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein jardura sektoretan diharduten enpresa txiki eta ertainetako zuzendari eta gerenteei zuzenduta dago, batez ere enpresa industrialetan agintzeko ahalmena daukaten pertsonari.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

“Learn by doing” eredu eta metodologiari jarraitzen dion jardunaldi intentsibo bat da, zeinaren bitartez bertaratutakoek prestakuntza jasotzen baitute dena delako gaiari buruz. Ondoren, gaia taldean lantzen da irakasle adituen aholkularitzarekin, lor daitezkeen onurak nabarmenduz eta kasu errealak erakutsiz. Hori guztia 10-15 pertsonako taldetan antolatuta eta landetxe batean, bertaratuak beren ohiko bizimodutik aldendu daitezten, eta EIKTen munduan buru-belarri murgildu. Gaiak: 4.0 Industria, Turismoa, EIKTak, Zibersegurtasuna, Produktibitate Pertsonala, Marketin Digitala, Eraldaketa Digitala eta Datuen Analisia - Business Intelligence...



LAGUNTZA MOTA

Egun osoko jardunaldia. 10 orduko iraupena landetxe desberdinetan.

1 | BERRIKUNTZA Innobideak - Lehiabide

ALDIA:
Argitaratzeko zain - 2020/09/24



HELBURUA

Berrikuntza proiektuak (negozioko produktua eta prozesuak), dimentsio handiagokoak eta trakzio enpresen eta beren hornitzaileen arteko lankidetzak garatzekoak.



NORENTZAT

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak, logistikoak (garraioa izan ezik) eta sormen industriakoak (industri diseinua, ikus-entzunezkoak, bideojokoak eta moda).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

1. Berrikuntza proiektuak egiteko laguntza (banakakoak, lankidetzan edo trakzio enpresek gidatutakoak eta beren balio katean txertatutako enpresa hornitzaileekin batera egindakoak), arlo hauetan: Negozio eredu berrien Produktua, Prozesua, Merkaturia eta Antolamendua eta garapena.
2. iniciación, análisis y diseño de operaciones que supongan una mayor dimensión empresarial.



LAGUNTZA MOTA

- **Banakako proiektuak:** proiektuaren gastu hautagarrien %50. Proiektu bakoitzeko 50.000 € gehienez.
- **Lankidetzak proiektuak:** gastu hautagarrien %60 (gehienez ere 35.000 € enpresako eta 100.000 € proiektuko).
- **Gastu hautagarriak:** (i) kanpo enpresekiko kontratazio gastuak, (ii) proiektuaren gauzapenean sartuta dauden pertsonen barne gastuak (aurreko kontzeptuaren %30 gehienez), (iii) sektore, enpresa edo lurralde eragileen kontratazio gastuak (10.000 € gehienez), (iv) patenteen eskabideak aurkezten eta tramitatzen adituak diren kanpoko enpresak kontratatzeke kudeaketa gastuak eta erregistro tasak, utilitate modeloak. Markak eta diseinuak (nazioartekoa eta nazionala atzerrian)



BALDINTZAK

- **Banakako proiektuak:** gutxienez 10 enplegu dauzkaten enpresak.
- **Lankidetzak proiektuak:** gutxienez 5 enplegu dauzkaten enpresak. Parte hartzen duten enpresen multzoak 20 enplegu eduki behar ditu gutxienez.



HELBURUA

Kudeaketa aurreratuko printzipio, tresna eta metodologiak aplikatzen eta ezartzen lagunduz, Euskadiko enpresen lehiakortasunaren hobekuntza bultzatzea, eta horretarako hasierako kontraste bat egin eta proiektu pilotuak edota finkapen proiektuak lantzea.



NORENTZAT

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak, logistikoak (garraioa izan ezik) eta sormen industriakoak (industri diseinua, ikus-entzunezkoak, bideojokoak eta moda).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Hasierako kontrastea: EUSKALITen lankidetzarekin, kudeaketa aurreratuko ereduarekiko posizionamendu kontraste bat egiten du enpresak.

Proiektu pilotuak: Kudeaketa Aurreratuko metodologiak praktikan aplikatzeko proiektuak, aldez aurreko trebakuntzarekin (prestakuntza).

Finkapen proiektuak: Kudeaketa Aurreratuko metodo eta tresnak ezarri eta hartzeko proiektuak.



LAGUNTZA MOTA

Hasierako kontrastea dohainik.

Proiektu pilotuak: moduluen %60tik %70era bitarteko diru laguntza.

Finkapen proiektuak: kanpo aholkularitzako kostuen %60ko diru laguntza.

- 12.000 € gehienez 5 enplegutik 49ra bitarteko enpresentzat (Foru Aldundiak).
- Proiektu bakoitzeko 25.000 € gehienez 50 enplegu edo gehiago dauzkaten enpresentzat (SPRI).

Programa hau Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin batera garatzen da, EUSKALITen lankidetzarekin.



BALDINTZAK

Gutxienez 5 enpleguko enpresak.



HELBURUA

Lehiarako hobekuntza bultzatzea enpresetan langileen parte hartzea (kudeaketa, emaitzak edota jabetza) sustatzea xede duten ekintzen bitartez, eta proiektu partekatuetan oinarritutako erduetarako bidean aurrera egitea, kudeaketaren edo jabetzaren oinordekotza planifikatzea, eta taldeek behar dituzten trebetasunak identifikatzea teknologia berriak eta 4.0 Industriako prestatzaile digitalak sartzeko.



NORENTZAT

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak, logistikoak (garraioa izan ezik) eta sormen industriakoak (industri diseinua, ikus-entzunezkoak, bideojokoak eta moda).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Honako helburu hauek dituzten egitasmoak: (i) enpresako pertsonak parte hartze handiagoa izatea kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan, (ii) gardentasun, konfiantza, ekitate, egonkortasun eta barne lankidetzan handiago batean oinarritutako erduetarantz aurrera egitea, azken helburua kideek gero eta gehiago partekatzea enpresa proiektua, (iii) enpresaren kudeaketaren edo jabetzaren oinordekotza planifikatzea (iv) taldeek behar dituzten trebetasunak identifikatzea, teknologia berriak eta 4.0 industriako prestatzaile digitalak sartzeko.



LAGUNTZA MOTA

- **Dirulaguntza:** gastu hautagarrien %50, proiektu bakoitzeko 50.000 €-ko gehieneko mugarekin.
- **Gastu hautagarriak:** (i) kanpo enpresekiko kontratazio gastuak, (ii) proiektuaren gauzapenean sartuta dauden pertsonen barne gastuak (aurreko kontzeptuaren %30 gehienez).



BALDINTZAK

Gutxienez 10 enplegu dauzkaten enpresak.

3 LERROEN EZAUGARRI KOMUNAK

- Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak, logistikoak (garraioa izan ezik) eta sormen industriakoak (industri diseinua, ikus-entzunezkoak, bideojokoak eta moda).
- Beste laguntza lerro batzuetan sartzen diren proiektuak ez dira kontuan hartzen (I+G, internazionalizazioa, industria digitala...).
- Proiektuak SPRIri laguntzaren eskabidea aurkezteko dataren ondoren hasi behar dira. 2020-01-01etik aurrera hasitako proiektuak kontuan hartuko dira, baldin eta deialdia argitaratu den eguna baino bi hilabete lehenago aurkeztu badira.
- Segidako ebazpena.
- Minimis klausula.
- Proiektuaren gehieneko iraupena: 12 hilabete.
- Proiektua amaitzeko muga data: 2021eko urriaren 15a.

ALDIA:
2020 urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Euskadiko enpresetako zuzendari taldeetako kideei ezagutzera ematea kudeaketa aurreratuaren funtsezko elementuak eta negozio ereduetan balio proposamenak eta berrikuntza hobetzen laguntzen duten gakoak.



NORENTZAT

Erauzketa industrialeko jarduerak, jarduera eraldatzaileak, produktiboak, aurrekoen produkzio prozesuari loturiko zerbitzu teknikoekin zerikusia daukatenak eta informazioaren eta komunikazioen gizartearekin lotutakoak eta sormen industriakoak (industri diseinua, ikus-entzunezkoak, bideojokoak eta moda).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Prestakuntza saio independenteak honako gaien inguruan:

- Estrategia. Negozio ereduak.
- Bezeroak. Supply Chain hobekuntza.
- Pertsonak. Talentua. Negoziazioa. Taldeak.
- Gizartea. Berdintasuna.
- Berrikuntza. Zaintza lehiakorra. Jabetza intelektuala.
- Emaitzak. Kudeaketa ekonomikoa.



LAGUNTZA MOTA

Prestakuntza saioak dohainik.



BALDINTZAK

EAEEn dauden enpresetako zuzendari talderen bateko kide izatea.



HELBURUA

Euskadiko enpresetan berrikuntza ez teknologikoko beharrak eta soluzioak identifikatzeko eta horiek ezartzeko aholkularitza zerbitzuak egitea.



NORENTZAT

Manufaktura industriak, erauzketa industriak, energiaren hornidura, ur eta hondakinen kudeaketa, industriari lotutako zerbitzuak, IKT jarduerak, handizkako merkataritza, garraioa, biltegiatzea, finantza jarduerak eta aseguruak.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

Aholkularitza teknikoko zerbitzuak (50 orduko aholkularitza aditua), gai hauetan hobekuntzara eta berrikuntzara zuzendutako proiektuak landu ahal izateko:

- Ekonomiko finantzarioa.
- Produkzioa.
- Logistika.
- Barne prozesuak.
- Pertsonak.
- Bezeroak.
- Merkatu berriak.
- Marka eta diseinuen erregistroa.

LAGUNTZA
MOTA

Berrikuntza proiektuak babesteko zerbitzua.



BALDINTZAK

6 - 99 enplegu dituzten enpresak
Ekimenean parte hartzen duten enpresek ez dira Innobideak eta Hazitek programetako onuradunak izan behar 2016, 2017 edo 2018 urteetan.

ALDIA:
2020 urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Enpresa ideia bat BIC batean (Business Innovation Centre) heltzeko laguntza. Ideia enpresa bihurtzen bada, maileguak eskura daitezke baldintza onuragarrietan.



NORENTZAT

Pertsona fisikoak, mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak eta enpresa industrial handiak, edo lotutako zerbitzuak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

1. laguntza:

Enpresa industrialari edo izaera berritzailea edota teknologikoa duten zerbitzuei lotutako ideia bat umotzeko laguntza, gehienez ere 18 hilabetez.

2. laguntza:

Ideia amaitzen bada negozio plan bideragarri batekin eta enpresa berri bat eratzen bada (enpresa txiki edo ertaina) LUZAROn finantzaketa eskuratu ahalko da, beranduen jota eraketaren hurrengo urtean.



LAGUNTZA MOTA

Gehienez ere 30.000 €-ko dirulaguntza, ez itzultzekoa, eta diruz lagundu daitezkeen gastuen %100eraino.

Inbertsioetarako maileguak, 36 hilabeteko gehieneko epearekin, aktibo finko berriak eskuratzeko, eraikuntzak sartu gabe, eta 3 urtetan gutxienez 3 enplegu sortzekotan.



BALDINTZAK

Aktibo finko berrien %70eko laguntza gehienez, eta inbertsioaren %30 sustatzaile berriak jarriko du ordaindutako kapital sozialaren bidez.

40.000 €-tik 180.000 €-ra bitarteko zenbatekoa (7 urte, gabealdiko 2 urterekin, euriborra + %1,25 eta sustatzailearentzako bermerik ez).

Formalizazio gastuak eta lehen 2 urteetako interesak SPRIk ordaintzen ditu.



BALDINTZAK

Pertsona partikularra, talde sustatzailea edo sortu berria den enpresa bat (urtebetetik beherakoa).

ALDIA:
2020ko urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Enpresa ideia bat BIC batean (Business Innovation Centre) heltzeko laguntza. Enpresa berriak baldintza onuragarrietan eskura ditzake maileguak.



NORENTZAT

Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertain industrialak, edo Ekintzailearen onuradun izandako zerbitzu lotuak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

1. TARTEA:

Finantzaketa, enpresa sortu eta berehala.

2. TARTEA:

Ondorengo fase batean, hazteko potentziala daukaten enpresentzako finantzaketa. Hiru kategoriatan sailkatzen dira: Potentzial handikoa, potentzialduna eta IKT proiektuak.



BALDINTZAK

- | | |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Ekintzailearen onuraduna. • Eraketatik 3 urte gehienez. • Hazteko potentziala daukaten proiektu industrialak edo industriara lotutako zerbitzuak. • Gutxieneko kapital soziala: 25.000 €. • Gehieneko ekarpena: Kapital Sozialaren bikoitza, gehienez 100.000 €. | <ul style="list-style-type: none"> • Ekintzailearen onuraduna. • Eraketatik 5 urte gehienez. • Hazteko potentziala daukaten proiektu industrialak edo industriara lotutako zerbitzuak. |
|--|---|

	Fondo propioak	Salmentak	Enpl.	Ekarpena
1. segmentua	200.000	400.000	10	400.000
2. segmentua	100.000	250.000	5	250.000

2 | EKINTZAILETZA Aurrera

ALDIA:
2020ko urtarrila - 2020ko
abendua



HELBURUA

Enpresa ideia bat BIC batean (Business Innovation Centre) heltzeko laguntza. Enpresa berriak baldintza onuragarrietan eskura ditzake maileguak.



NORENTZAT

Industria izaerako eta elkartutako zerbitzuetako jarduera ekintzaile bat garatzen duten enpresak, eta oinarri teknologikokoak eta/edo berrikuntzakoak irizten diren informazioaren eta komunikazioaren gizarteko eremukoak, 3 urtean gutxienez 3 enplegu sortzen badituzte, eta eskaera jarduera hasi baino hiru urte lehenago aurkezten badute.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

ELKARGIk abalak emango dizkie enpresei, epe luzerako maileguen %100ekin, FEIrekin formalizatu beharrekoak (Finantzen Euskal Institutua), eta azken horrek konpromisoa hartuko du lerro hori 5 milioi €-rekin hornitzeko.



MAILEGUEN BALDINTZAK

Gutxienerako zenbatekoa: 50.000 €
Gehieneko zenbatekoa: 250.000 €
Interes tasa: 12 hilabeteko Euriborra + %1,25
Finantzaketa epea: 7 urtera arte
Gabealdia: 2 urtera arte
Kuotak: hiru hilekokoak, hiru hileko natural bakoitzaren amaieran



ESKAERAK AURKEZTEA

Enpresa onuradunek finantzazioa eskatzen den Enpresa Proiektuaren deskribapen memoriarekin batera aurkeztu beharko dute eskaera, Business Innovation Centerren (BIC) bidez.



BALDINTZA

Edonola ere, behar finantzarioen zati bat enpresa eskatzailearen fondo propioekin estali beharko da. Fondo propioek gutxienez Enpresa Proiektuaren finantzazio osoaren beharren %30 estali beharko dute.



HELBURUA

Jarduera 3 esparrutan:

- **STARTUPAK: Proiektu erreala fakturazio errearekin, bezero handi baten erreferentzia, azelerazioa; finantzaketa edota inbertsioa** eskuragarri.
- **ENPRESAK: Talentua** eskuratzeko aukera, **teknologia eta soluzio berritzaileak** sartzeko modua, **dibertsifikazio** aukerak.
- **EUSKADI: Munduko ekintzailtza** industrialaren mapan **posizionamendu** bat, sektore industrialaren **hobekuntza eta garapena**.



NORENTZAT

Munduko edozein lekutako startupak, **4.0 Industriari lotutako teknologia berrietan oinarritutako produktu edo zerbitzuak** dauzkatenak, beren zerbitzuaren/produktuaren konfigurazioa amaitzeko moduan daudenak edo dagoeneko merkatuan daudenak.

Hasieran, Industriara, Energiara, Osasun Arlora eta Foodtechera zuzenduta.

LAGUNTZAREN
DESKRIPZIOA

- Languneak eta euskarri teknologikoa.
- Prestakuntza.
- Mentoringa.
- Networkinga.
- Laguntza ekonomikoen eskurapena.
- Nazioarteko startupak ostatzeko laguntza.
- Bisibilitatea eta posizionamendua.
- Alumni.

Munduko lehen azeleratzailea startupeki maila handieneko bezero industrialengana iristea bermatzen diena.

www.bind40.com



HELBURUA

Makineria edo ekipamendu aurreratua erosteko laguntza (Hardwarea eta Softwarea), 4.0 Industriako proiektuak inplementatzeko, Fabrikazio Aurreratuaren esparruan teknologiak aplikatzera zuzenduta.



NORENTZAT

Erauzketa, eraldaketa eta produkzio jarduerak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak, eta aurrekoekin lotutako zerbitzu teknikoak ematen dituztenak (produktuari-prozesuari lotuak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Makineria edo ekipamendu aurreratu hori (Hardwarea eta Softwarea) 4.0 Industriako proiektuei ekiteko helburuarekin erosi beharko dira, teknologia hauetakoren bat badute edo erabiltzen badute: (i) Big Data eta Analitika Aurreratua, (ii) Gehikuntzako Fabrikazioa, (iii) Robotika Aurreratua eta Kolaboratiboa, (iv) IIoT (Industrial Internet of Things), (v) Adimen Artifiziala, (vi) Sistema ziber-fisikoak, (vii) Errealitate Birtuala, (viii) Errealitate Areagotua, (ix) Biki Digitalak (Digital Twins).



LAGUNTZA MOTA

Laguntzaren norainokoa: Onartutako gastu eta inbertsio hautagarrien %15. Dirulaguntzaren muga 70.000 €-koa izango da Laguntza Eskaera bakoitzeko.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioak: Landu nahi den 4.0 Industriako proiektuari lotutako Makineria, Ekipamendu Aurreratu (Hardwarea eta Softwarea) eta Aholkularitza gastuak.

Mugak: Aholkularitza gastuak ezingo dira proiektuaren aurrekontu osoaren %25 baino gehiago izan.

La subvención máxima anual por empresa es 100.000 €.



BALDINTZAK

Gutxieneko inbertsioa Laguntza Eskaerako: 50.000 €.

Lehiaketa bidez.

Ezartzeko eta martxan jartzeko gehieneko epea: 12 hilabete (2020ko urtarrilaren 1etik aurrera)

Minimis klausula.



HELBURUA

Oinarri teknologikokoak edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak sortu eta garatzeko laguntzak.



NORENTZAT

Erauzketa, eraldaketa eta produkzio jarduerak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainak, eta aurrekoekin lotutako zerbitzu teknikoak ematen dituztenak (produktuari-prozesuari lotuak).



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Inbertsio berrietarako laguntza, honako kategoria hauetan: jabetza industrialak eta patenteak, aplikazio informatikoak, lurrak eta ondasun naturalak, eraikinak, instalazio teknikoak, makinak, tresneria eta informazio prozesuetarako ekipamenduak.

24 hilabeteko Proiektua + 1 urteko gabealdia + 5 urte itzultzeko



LAGUNTZA MOTA

Aurrerakin itzulgarriak, laguntzeko moduko inbertsioaren %25 - %35ekoak izan daitezkeenak:

- 1.500.000 €-ko muga
- Gehienez ere 150.000 € sortutako enplegu eta
- Gehienez ere 100.000 € enplegua mantenduz gero.

Oinarri teknologikoko enpresa txikiak: inbertsioaren %35.

Soilik berritzaileak diren enpresa txikiak: inbertsioaren %30.

Oinarri teknologikoko enpresa ertainak: inbertsioaren %30.

Soilik berritzaileak diren enpresa ertainak: inbertsioaren %25.



BALDINTZAK

Proiektuaren gutxienezko inbertsioa: 120.000 €.

Irizpide sustatzailea (aurre-eskaera: aurre-eskaera aurkezteko aldiaren eta programaren deialdia argitaratu ondorengo eskaera formalaren arteko inbertsioak onartzen dira).



HELBURUA

Aktibo finakoak eskuratzeko laguntza, modernizatzeko eta laneko segurtasuna handitzeko.



NORENTZAT

Erauzketan, eraldaketan, produkzioan eta zerbitzu tekniko aurreratuetan diharduten enpresa industrialak, baita zerbitzu logistikoetako enpresak ere –garraioak alde batera utzita–, baldin eta laguntzaren xede diren inbertsioak Ibaizabal itsasadarraren ezker aldean (Bizkaia), Oizualdean (Gipuzkoa) edo EAEko urteko batezbestekoaren %20tik gora dabilen langabezia tasa daukaten udalerrietan kokatzen badira.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Ez itzultzeko dirulaguntzak (inbertsio produktiboaren %10).



LAGUNTZA MOTA

Eman beharreko dirulaguntza, berez, laguntzeko moduko inbertsioaren %10 izango da, eta inola ere ez da 3 milioi € baino gehiago izango enpresa bakoitzeko.



BALDINTZAK

Enpresaren baliabide propioak, dirulaguntzak kenduta: subentzionagarritzat jotzen den inbertsioaren zenbatekoaren %25 gutxienez.

- Enpresa handiek 1.750.000 €-ko gutxienerako inbertsio onartua egin beharko dute, eta inbertsio horri eta hasierako enpleguari gutxienez bost urtean eutsi, edo, inbertsioaren gutxienerakora iritsi gabe, gutxienez 25 enplegu garbi sortu (SOILIK IZENDATUTAKO GUNEETAN, EZ UDALERRIETAN).
- Enpresa Txiki eta Ertainek 300.000 €-ko gutxienerako inbertsio onartua egin beharko dute, eta inbertsio horri eta hasierako enpleguari gutxienez hiru urtean eutsi, edo inbertsioaren gutxienerakora iritsi gabe, 5 enplegu garbi sortu.



HELBURUA

Inbertsio materialak egiteko laguntza finantzarioa ematea, honetarako: establezimendu industrialak sortzea edo lekualdatzea, lehendik dauden produkzio lerroak hobetzea edo aldatzea, eta 4.0 Industria Konektatuko teknologiaren inplementazio produktibora zuzendutako inbertsioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren aldetik.



NORENTZAT

Legez eraturako merkataritza sozietateak, Sektore Pribatukoak badira.
CNAE-2009ko 10-32 dibisioetan (eta 38.3x) sailkatu daitezkeen jarduerak/proiektuak.



LAGUNTZAREN DESKRIPZIOA

Programaren xede nagusiak dira inbertsio produktibo lehiakorra eta enplegu sortzailea sustatzea, ezarpen berrien bitartez (daudenak lekualdatuz edo establezimendu berriak sortuz), ekoizteko ahalmena handitzea edo jada dauden ekoizpen lerroak hobetzea edo egokitzea, eta digitalizazio industrialara, “4.0 Industria Konektatuko” teknologien ezarpen produktiboaren bitartez; ekoizpen gailuak eta ekipamenduak erostea finantzatu ahal izango da, eta baita ere ekipamendu horiei lotutako ekoizpen prozesuko ingeniarietza gastuak.



LAGUNTZA MOTA

Mailegua:

- Enpresa berriak: gehienez ere Fondo Propioak halako 3.
- Existitzen diren enpresak: gehienez ere Fondo Propioak halako 5.



BALDINTZAK

10 urteko mailegua (lehenengo hirurak gabealdikoak):

- Gehieneko finantzaketa: %75.
- Interes tasa: 1,00%.
- Gutxieneko zenbatekoa 75.000 €, 100.000 €-ko gutxieneko aurrekontuaren ondorioz.
- Maileguaren zenbatekoa: ICT/1100/2018 Aginduaren, urriaren 18koaren, 8. artikuluan xedatutako ehunekoak eta mugak ezartzetik ateratzen dena.
- Derrigorrezko bermea: %10, %41 edo %70, lortutako sailkapenaren arabera.



**Hemen da
euskal enpresa**

spri.eus

Sprilur

Parke
EUSKADIKO
PARKE
TEKNOLOGIKOAK

 **BasqueTrade
& Investment**
Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeak Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA

 **EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
EUSKADIKO GOBIERNUA
EUSKADIKO GOBIERNOA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS